



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Sopelako Udala

Sopelako Udaleko menpeko lan-kontratuko langileen lanpostu bat (1) betetzeko oposizio-lehiaketa bidezko hautaprobetarako deialdiaren oinarri orokorrak eta espezifikokoak argitaratzea.

2026ko abuztuaren 7ko Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeak, Udalbatzen Legezko Araupidearen Iharduerarako Arautegiaren 206 Atalak erabakitzen duenaren salbu, beste batzuen artean, honako erabakia hartu zuen:

Lehenengoa: Onartzen dira Sopelako Udaleko Mendeko lanpostu bat, Erregistro, Telefono eta Informazioa kategoriakoa, jabetzan betetzeko deialdia arautuko duten oinarriak. Oinarri horiek erabaki honen I. eranskinean jasota daude.

Bigarrena: Argitara bitez oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Hala ere, eskabideak aurkezteko epea hogeita (20) egun baliodunekoa da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Sopelan, 2026ko abuztuaren 7an. — Alkatea, Guruzne Carrasson Torrontegui

**I. ERANSKINA****SOPELAKO UDALEKO MENPEKO LAN-KONTRATUKO LANGILEEN
LANPOSTU BAT (1) BETETZEKO OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZKO
HAUTAPROBETARAKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da mendeko lanpostu bat (1) betetzea, oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, Erregistro, Telefono eta Informazio kategoriakoa, Sopelako Udaleko langile lan-kontratudunen plantillakoa (2024ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dago-kion E taldea, 16. maila, II. hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa eta derrigortasun-data igarota).

Deitutako plazzen kopurua handitu ahal izango da, deialdi honen ondoren onartutako enplegu-eskaintzetan sartutako lanpostu hutsen arabera. Kopuru-handitze hori alkate-tza-ebazpen baten bidez onartuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar-ko da. Ebazpenean, lanpostu-kopurua, dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigorta-sun-data adieraziko dira. Nolanahi ere, hamabigarren oinarri orokorraren 1. zenbakian aurreikusitako onartutakoen zerrenda argitaratu baino lehenago egin beharko da hori.

Bigarrena. — Aplikatu beharreko araudia

Udal-plantillako plazak jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuen deialdiei honako araudi hau aplikatuko zaie:

- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oi-narrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena.
- Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, toki-administrazioak funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko progra-mak ezartzen dituena.
- Ordezko izaerarekin, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onar-tutako araudi orokorra –Estatuko Administrazio Orokorrera Langileak Sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak Betetzeko eta Lanbide Sustapenerako Araudi Orokorra.
- Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea, Euskararen erabilera normalizatze-koa dena.
- Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabile-ra normalizatze-koa.
- Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatze-tik salbuesteko dena.
- Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tit-uak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Ba-teratuko mailekin parekatze-koa dena.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakume eta gizonen arteko berdinta-sunari buruzkoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzaren aldeko Legearen testuategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.
- Otsailaren 25eko 2/2004 Legea, datu pertsonalen fitxategi publikoei eta Dokumen-tuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.



- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa.
- Toki-araubidearen arloko indarreko legezko xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko toki-erakundeei buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen dueña.
- Oinarri hauek.

Oro har, eta langile guztientzat, alde batera utzita zer kidego eta eskalatan sartu nahi duten, arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudia.

Hirugarrena—*Izangaiek bete beharreko baldintzak*

1. Baldintza orokorrak

1.1. Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea.
Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute espainiarrek enplegu publikoetan dituzten baldintza berberetan, zuzenean edo zeharka botere publikoa egikaritzen edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzen parte hartzea dakarten enpleguetan izan ezik:
 - a.a) Europar Batasuneko kide den estatuetako baten nazionalitatea dutenak.
 - a.b) Espainiarren ezkontideak eta Europar Batasuneko kide den estatuetako baten ezkontideak, ezkontidearen nazionalitatea edozein izanik ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude.
Era berean, ezkontide bien ondorengoei hartu ahal dute parte baldintza berdinetan, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo bestela, adin horretatik gorakoak izanda eguneroko bizimoduan besteren laguntza behar badute.
 - a.c) Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunenei jarraiki, a) idatz- zatian zehaztutakoaren arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
 - a.d) Aurreko apartatuetan aipatzen diren atzerritarrak eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrak administrazio publikoetara sartu ahal izango dira, lan-kontratudun langile gisa, espainiarren baldintza berberetan. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatu aurretik.
- b) Dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala edukitzea eta desgaitasun-maila lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko oztopo ez dela egiaztatzea. Hori ziurtatuko ziurtagiri medikoaren bidez egiaztatuko dute.
- c) Hamasei urte beteta edukitzea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gorakoa ez izatea.
- d) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, herri administrazioei edo konstituzio organoei nahiz autonomia erkidegoetako estatutu organoei dago kienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaitasunetik edo desgaitasun berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.



- e) Eskola Ziurtagiria edo baliokidea den titulu baten jabe izatea; edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako horietako bat lortzeko moduan egotea.

Hautaketa-prozesuan barruan, egiaztatzea II. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea dutela.

Atzerrian lortutako tituluak dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute badutela dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa ziurtatzen duen agiria.

- f) Ez egotea desgaitasuneko edo bateraezintasuneko ezein legezko kausaren pean (administrazio publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunaren arloan indarrean den araudian aurreikusitakoan pean, esan nahi da), hargatik eragotzi gabe lehendik kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezinen batean dabiltzaneki legezko arau horiek aipatzen duten hautatzeko eskubidea baliatu ahal izatea.

- g) Azterketa-eskubideen tasa eskabideak aurkezteko epearen barruan ordainduta izatea, betiere bat eginik Sopelako Udalaren zerbitzuak hartzeagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen indarreko Ordenantza Fiskalarekin.

Izangaiek aukeratzen duten plaza bakoitzeko, dagokion tasa ordaindu beharko dute, izen-abizenak adierazita eta banan-banan.

1.2. Baldin eta, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen hautaketa-prozesuan parte hartzea eskatu dutenek aurkeztutako eskabideak aztertuta, ondorioztatzen bada ez dituztela horretarako baldintzak betetzen, eragindako pertsonak ofizioz onartuko dira txanda libre arruntean, betiere txanda horretan onartuak izateko baldintzak betetzen badituzte.

1.3. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira aurreko baldintza guztiak, eta hautaketa-prozedurak irautean duen bitartean indarrean egon beharko dute izendapenaren unera arte.

2. Parte hartzeko baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da.

3. Datuen babesa

Oinarri hauen xede den edozein hautaketa-prozesutan parte hartzeak esan nahi du izangaiak eskabidean jasotako datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila) tratatzeko baimena ematen duela, datu horiek buletinetan, iragarki-tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaila partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko, bai eta epaimahaiak berak edo epaimahaiaren enkarguz erabakitzen den erakundeak edo enpresak hautaketa-prozesuari dagozkion probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko behar diren datuak egiaztatzeko ere. Interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean, ofizioz egiaztatu eta/edo espedientean sartuko dira honako informazio hauek: nortasun-datuak, titulazio akademikoak, IVAPen bidez egindako prestakuntza-ikastaroak, IT Txartelaren ziurtagiriak. Egiaztapen hori ofizioz ezin bada egin, hautagaiei eskatuko zaie haien egiteko. Eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeari dagokionez, Sopelako Udalean hizkuntza-eskakizun hori egiaztatuta duenak ez du berriro egiaztatu beharrik izango, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean ere. Horretarako, parte-hartzaileak berariaz baimena emango dio Sopelako Udalari hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzeko.

Oinarri hauek arautzen duten hautespen-prozesuan publikotasunaren printzipioa begiratu behar denez gero, hautagaiek baimenik ematen ez badute aipatutako datu pertsonalak aurreko paragrafoko helburuekin erabil daitezen, haien eskabideak ez dira onartuko.

Hamabigarren oinarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako –hautaketa-prozesuan ondorioz lan-poltsak eratzea–, izangaiek prozesu horietan parte hartzeko eskabidean



adierazi beharko dute ea onartzen duten edo ez duten onartzen Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei datu hauek lagatzea: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Horrela, erakunde horiek enplegu-eskaintzak egin ahal izango dituzte, legez aurreikusitako baldintzetan.

Izangaiek emandako datuak dagokion fitxategian sartuko dira, eta horren arduraduna Sopelako Udala izango da.

Interesa duten pertsonak sarbide, zuzenketa, indargabetze eta aurkaritza eskubi-deak erabili ahalgo dituzte idazki bidez honako helbidera zuzenduta: Sopelako Udaleko Giza Baliabideen Arloa, Sabino Arana z.g., 48600 - Sopela.

Laugarrena. — Azterketa-eskubideen tasa

Eskabideak aurkezteko epean indarrean dagoen ordenantza fiskalean ezartzen da dagokion tasa.

Bosgarrena. — Eskabideak

1. Modua

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuaren arabekoak izango dira. Eredu hori doan emango da Sopelako Udaleko herritarrentzako arreta-bulegoetan (Sabino Arana z/g), eta www.sopela.eus webgunean ere eskura daiteke, «enplegu publikoa» atalean.

Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaprobetan parte hartu ahal izateko, izangaiek beren eskabideetan adierazi beharko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Aurkezten den eskabide ofizialean, alegatutako merezimenduen zerrenda baino ez da jaso beharko. Alegatutako merezimenduak deialdiaren oinarri espezifikoetan zehaztutako epean eta moduan egiaztatuko dira agiri bidez.

Eskabidean dagokion laukian adierazi beharko da zein txandatan parte hartu nahi den: irekian edo desgaitasuna duten pertsonenean. Txanda bietako batean bakarrik parte hartu ahal izango da. Desgaitasuna duten pertsonen txandan parte hartzen duten izangaiek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen ekarri beharko dute desgaitasuna egiaztatzen duen dokumentua.

2. Eskabideak aurkezteko tokia

Honela aurkeztu ahal izango dira eskabideak: online, udalaren webgunean, «enplegu publikoa» atalean; Sopelako Udalaren Erregistroan (HAB); edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan.

3. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea hogeit hamar egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

4. Tasak ordaintzea

Azterketa-eskubideen tasa eskabidea aurkezteko epearen barruan ordainduko du hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duen pertsona bakoitzak, betiere Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/89 Legearen 12. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta ez da itzuliko baldin eta interesdunari egotz dakiokkeen arrazoiaren bat bada. Beraz, inor hautaketa-prozesutik kanpo geratzen bada baldintzak ez betetzeagatik, prozesua ez gainditzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik, ez zaio azterketa-eskubiderik itzuliko.

Azterketa-eskubideen zenbatekoa ordaintzeko, bete beharrekoa izango da Sopelako Udalaren zerbitzuak hartzeagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen indarreko Ordenantza Fiskala.

Izangaiek aukeratzen duten plaza bakoitzeko, dagokion tasa ordaindu beharko dute, izen-abizenak adierazita eta banan-banan.

**5. Eskabideen akatsak zuzentzea**

Eskabidea garaiz (eskabideak aurkezteko epea) eta behar bezala aurkezten ez bada, edo ezarritako tasa ez bada ordaintzen eskabideak aurkezteko epearen barruan, izan-gaia hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da. Akats horiek ezin izango dira konpondu eskabideak aurkezteko epetik kanpo.

Eskabidean egiteko okerrak, oker materialak zein oker aritmetikoak daudela antze-manetz gero, oker horiek noiznahi zuzendu ahalko dira, ofizioz zein interesdunak hala eskaturik.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 30/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideetan akatsik bada, interesdunari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsok zuzen ditzan, eta adieraziko zaio, halaber, horrela egiten ez badu eskarian atzera egin duela ulertuko dela.

6. Probak egiteko hizkuntza.

Eskabidean adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin nahi diren hautaketa-probak (euskaraz edo gaztelaniaz). Ezer adierazi ezean, proba guztiak gaztelaniaz egin nahi direla ulertuko da.

Seigarrena.— Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkate-udalburuak onartu eta aginduko du, ebazpen bidez, onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrendak argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-oholean eta www.sopela.eus web-orrian. Zerrenda horietan honako datuak jasoko dira: hautagaien izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera) eta, hala badagokio, ez onartzeko arrazoia.

Aipatutako zerrenden arabera bazter utzi diren izangaiek, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, 10 egun balioduneko epea izango dute bazter uztea ekarri duten akatsak edo ez egiteak zuzentzeko.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrendak automatikoki behin betiko bihurtuko dira. Erreklamaziorik bada, ebazpen berri batean baietsi edo ezetsiko dira, eta, horretan, hain zuzen, onartuko dira behin betiko zerrendak. Nolanahi ere, aurreko modu berean argitaratuko dira. Ebazpen horren aurka berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahal-ko zaio alkate-udalburuari, hilabeteko epean, behin betiko zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Behin-behineko zerrendetan kanpo geratu eta zerrenda horien aurkako erreklamazioa epe barruan aurkeztu duten izangaiek aurkeztu ahal izango dira probak egitera, betiere kautelazko neurri gisa, baldin eta egun horretarako ez bada ebatzi planteatutako erreklamazioa. Era berean, behin betiko zerrendetan kanpo geratu diren pertsonak aurkeztu ahal izango dira probak egitera, betiere kautelazko neurri gisa, baldin eta egiaztatzen badute errekurtsioa jarri dutela baztertzearen aurka, eta egun horretarako errekurtsioa ebatzi ez bada.

Zazpigarrena.— Epaimahaia**1. Osaera**

Hona hemen zein den Epaimahaiaren osaera: epaimahaiburua, idazkaria eta deialdiak zehazten duen mahaikide-kopurua. Epaimahaiaren kideak, guztira, ez dira inoiz izango bost baino gutxiago. Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira, eta osaera berezitasun-printzipioan oinarrituta egongo da, hau da, kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute, eta kideen erdiek gutxienez jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute. Hautaketa-organismoek osaera orekatua izango dute gizonen eta emakumeen presentziaren aldetik, non eta behar bezala justifikatzen ez den hori ezinezkoa dela.



Alkateak izendatuko ditu epaimahaiko kideak –titularrak nahiz ordezkoak–, eta haien izendapena argitara emango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren iragarki-oholean.

Kideetako bat Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP-APEI) proposatu beharko du, eta beste bat ordezkariak sindikalak. Nolanahi ere, hauteskunde bidez aukeratutako ordezkariak ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan. Hautaketa-organoetako kideak norbanakoarena izango da; ez, ordea, inoren ordezkaria edo inoren konturakoa.

Epaimahaiak aholkulariak sartu ahal izango ditu hautaketa-prozesuko proba guztietan edo batzuetan. Aholkulari horiek nor bere espezialitate teknikoan baino ez dute jardungo –hala ezartzen baita Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 81.9 artikuluan–, eta aholkua eta laguntza teknikoa beren espezialitatean jardunez emango dituzte, hitzarekin baina botorik gabe. Aholkulariek ere jardun beharko dute objektibotasun-, inpartzialtasun- eta isilpeketasun-printzipioen arabera.

Euskararen jakite-maila baloratzeko, epaimahai kalifikatzaileko kide izango da IVA-Pek proposatutako beste kide bat, ondorio horretarako bakarrik jardungo duena, hala aurreikusten baita Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 189.4 artikuluan.

2. *Parte ez hartzea eta errefusatzia*

Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen bada, eragindako pertsonak ezin izango dute Epaimahai osatu, eta alkate-udalburuari jakinarazi beharko diote. Bestalde, lege bera-ren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat, izangaien epaimahaiko kideak errefusatzia eska dezakete.

3. *Eratzea*

Epaimahai eratzeko edo jarduteko, beharrezkoa izango da, gutxienez, epaimahai-burua, idazkaria eta gainerako kideen erdia bertaratzea (titularrak nahiz ordezkoak). Kopurutik kanpo geratzen da idazkaria.

Baldin eta epaimahaiko kide titularren bat bertaratzen ez bada, edo gaixorik bada, eta, oro har, bestelako arrazoi justifikaturik badago, ordezkoak jardungo du haren postuan. Baldin eta epaimahai-buruaren kargua hutsik badago edo bertaratzen ez bada, gaixorik badago edo beste zeinahi legezko arrazoirik gertatzen bada, ordezkoak jardungo du haren postuan, edo bestela, epaimahai-kideetako artetik hierarkia-maila gorenekoak, antzintasun handienekoak edo adin zaharrenekoak, ordena horretan. Idazkariaren aldi baterako ordezkaria haren ordezkari egingo du, kargua hutsik badago, idazkaria kanpoan bada edo gaixorik badago edo, bestela, haren erabakiz.

4. *Jarduna*

Epaimahaiak jarduteko era jasota dago Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluetan zehaztutako arauetan. Epaimahai-buruak hautaketa-prozesua koordinatuko du, eta kalitate-botoarekin ebartziko ditu bozketetan gerta litezkeen berdinketak. Epaimahai-kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, hitza izango baitu, baina botorik ez.

Epaimahaiak jarduteko, printzipio hauek bete beharko dituzte: objektibotasuna, inpartzialtasuna, autonomia funtzionala eta profesionaltasuna. Kideen erantzukizuna izango da: prozedura bakoitzaren gardentasuna eta objektibotasuna, proben edukia eta isilpeketasuna, eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea.

Izangaien kopuruak hala gomendatzen duenean, Epaimahaiak administrazioko eta zerbitzuetako laguntzaileak izendatu ahal izango ditu, behar beste. Idazkaritzaren ardurapean jardungo dute laguntzaileak, hautaketa-prozesua behar bezala garatzen dela bermatu ahal izateko. Eta zerbitzuagatik kalte-ordainaren araudian aurreikusitako berratzak jasoko dituzte.

Epaimahai-kideek, bai eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulariek edo espezialistek ere, beren eginkizunak betetzean, izangaien intimitaterako eskubidea eta



errespetua eta begirunea bermatuko dituzte, eta euren ardura izango da bakoitzari buruz jasotako informazioa behar bezala tratatzen dela zaintzea.

Epaimahaiak ahalmena izango du oinarri hauetan edo oinarri espezifikoetan aurreikusi ez den guztian hautaketa-prozesua behar bezala antolatu eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, bai eta hura interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sortzen diren arazo guztiak konpontzeko eta bere eginkizunak betetzeko ere. Ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio alkate-udalburuari, ebazpenen bertan ezartzen den epearen barruan, ebazpena iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epaimahaiak izangaien nortasuna egiaztatzeko eskatu ahal izango du hautaketa-prozesuko edozein unetan.

Epaimahaiak hautaketa-prozesuan zehar euren espedientearen berri izateko eskubidea bermatuko die izangai guztiei.

Epaimahaiak oposizio-gileen datu-isilpekotasuna bermatzeko neurriak hartuko ditu. Ahozko probetan, irakurri behar diren proba idatzietan edo ariketa praktikoetan izan ezik, gainerakoetan izangaien anonimatua babesten saiatuz zuzenduko dira azterketak.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal zaio alkateari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, kasuan kasuko ebazpena iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Sopelan izango du egoitza, Udaleko Erregistro Orokorren helbidean (gaur egun, Sabino Arana z/g, Sopela-48600).

5. *Kalte-ordainak*

Epaimahaiaren parte hartzen eta laguntzen dutenek eskubidea izango dute Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak –zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzkoak– ezarritako kalte-ordainak jasotzeko.

Zortzigarrena.- Hautaketa-prozedura

Hautagaiak oposizio-lehiaketaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo.

Prozesua osatzeko, probaldia egongo da.

Bederatzigarrena.— Nola garatu behar den hautaketa-prozesua

1. *Hasiera*

Oposizio-faseko ariketak ezingo dira hasi deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gutxienez hilabete igaro arte. Hala ere, euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak eta hizkuntzen jakite-maila egiaztatzekoak epe hori igaro gabe egin ahal izango dira, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

2. *Argitaratzea*

Oposizio-faseko lehen ariketaren tokia, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian argitaratuko dira, eta, horrekin batera, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpena ere emango da argitara, hala ezartzen baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan.

Epaimahaiak, era berean, argitara emango ditu oposizioko gainerako ariketak egi-teari buruzko hurrengo iragarkiak Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren web-orrian. Iragarki horiek, gutxienez, hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago jarri beharko dira jendaurrean.



3. *Deialdia*

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengoak egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik.

Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean datozen hautagaiei. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, ulertuko da uko egin zaiola proba horiek egiteari.

4. *Jarduteko hurrenkera*

364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikulua arabera, izangaiek ariketak egiteko izango duten hurrenkera zozketaz zehaztuko da, eta zozketa hori Herri Administrazioako Estaturako Idazkaritzak egingo du. Zozketatik ateratako letrarekin hasten den lehenengo abizenik ez badago izangaien artean, hurrengo letra hartuko da, eta horrela atera arte.

5. *Identifikazioa*

Epaimahaiak une oro eskatu ahal izango die izangaiei behar bezala identifika daitezen, eta, horretarako, oposizioko ariketa bakoitzean NANA edo beste edozein agiri ofizial aurkeztu beharko dute, epaimahaiaren iritziz izangaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duena (pasaportea, gidabaimena, atzerritarraren nortasun-zenbakia, etab.).

6. *Denborak eta bitartekoak egokitzea*

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikuluan ezarritakoaren babesean, epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako probak egiteko behar diren denbora eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak egiteko, desgaitasunen bat egiaztatu duten eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere probaren edukia desitxuratzen ez bada eta bertan eska daitekeen gaitasun maila murrizten ez bada, eta probak gainerako izangaien baldintza berberetan egingo direla bermatzen bada.

Desgaitasunen bat duten pertsonak sistema orokorraren bidez iristeko, erabili beharko dira deialdi berean bestelako txanden edo hautatzeko moduen bidez parte hartzen duten gainerako pertsonen aplikatuko zaizkien oinarri, arau eta exijentzia-maila berberak.

7. *Ariketen arteko tartea*

Oposizioko ariketa bakoitza amaitzen denetik hurrengo hasi arte, gutxienez 72 ordu igaro beharko da eta gehienez egutegiko 45 egun. Hala ere, epaimahaiak, egoki irizten badio, erabaki lezake ariketa bat baino gehiago egitea saio berean, bai eta izangaiek nork bere ariketa irakurtzea ere. Irakurketa hori publikoa izango da, eta zehazten diren egun eta orduetan egingo da; kasu horretan, 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da.

Hamargarrena. — Lehiaketa eta oposizio-faseak

1. *Oposizio-fasea*

Jakiteko eskatuko den araudia deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

Oposizio-fasea

Oposizioaldiko ariketa bakoitzaren puntuazioa udaletxeko iragarki-oholean jarriko da jendaurrean, eta, gutxienez, hiru egun balioduneko epea emango da, puntuazioa argitaratu eta bihamunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko.

Oposizioaldiak 3 ariketa ditu, hirurak ere nahitaezkoak eta baztertze-indarrekoak.

Epaimahaiak izangaien identifikazio-daturik ezagutu gabe kalifikatuko dituzte lehenengo eta bigarren ariketak.



Lehenengo ariketa.—Ezaguera teorikoak (nahitaezkoa eta baztertze-indarrekoa)

Idatziz erantzun beharko zaie erantzun alternatiboak dituzten galderei, eta galdera horiek zerikusia izan beharko dute oinarri hauetako I. eranskinean ageri den gai-zerrenda orokor eta espezifikoarekin.

Epaimahaiak gehienez 20 puntu eman ahal izango dio ariketa honi, eta ariketa gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Bigarrena.—Kasu praktikoa (nahitaezkoa eta baztertze-indarrekoa)

Epaimahaiak zehaztu beharreko proba praktikoa bat edo batzuk egin beharko dira, eta proba horiek zerikusia izan beharko dute oinarri hauen I. eranskinean agertzen den gai-zerrenda espezifikoaren edukiarekin.

Ariketa egin baino lehen, Epaimahaiak argitara emango ditu hura zuzentzeko irizpideak eta puntuatzeko modua.

Epaimahaiak gehienez 20 puntu eman ahal izango dio ariketa honi, eta ariketa gainditzeko gutxienez 10 puntu lortu beharko dira.

Hirugarren ariketa.—II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba

II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba: nahitaezkoa eta baztertze-indarrekoa izangai guztientzat. Euskararen II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzean datza. Gai edo ez-gai gisa kalifikatuko da.

Berariaz prestatutako probak eginez, hautagaiek egiaztatu beharko dute euskararen I. hizkuntza-eskakizunari dagokion ezagutza-maila dutela. Bai proben edukia, bai haien era, IVAPEk erabakiko ditu.

Ez da beharrezkoa izango II. hizkuntza-eskakizunari dagokion proba egitea, baldin eta izangaiak aldeztu aurretik egiaztatzen badu hizkuntza-eskakizun hori edo baliokidea baduela. Sopelako Udalean hizkuntza-eskakizun hori egiaztatuta duenak ez du berriro egiaztatu beharrik izango, ezta Euskara Tituluaren eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratua egiaztatuta dagoenean ere. Horretarako, parte-hartzaileak berariaz baimena emango dio Sopelako Udalari hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzeko.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotuta dagoen beste edozein euskara-titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko du (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko dena).

II. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten izangaiak ez-gaitzat joko dira, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Oposizioaldiko gehieneko puntuazioa

Aldi horretan lor daitekeen gehieneko puntuazioa, euskara-proba kontuan hartu gabe, 40 (berrogei) puntukoa da.

2. Lehiaketa-fasea

Lehiaketa-fasea ez da baztertzailerik izango, eta oposizio-fasea gainditu duten pertsonen alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratzeko datza. Fase honetan emandako puntu batura izango da balorazioa.

Merezimenduak baloratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da eskabidean alegatuta egotea eta, administrazioak, ofizioz, behar bezala egiaztatuta izatea; hala ere, hori guztia ezinezkoa bada edo interesdunak aurkako jarrera erakutsi badu, horretarako emandako epean behar bezala justifikatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Nolanahi ere, alegatzen diren merezimenduak konputatzeko erreferentziako azken eguna deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna izango da.

Merezimenduak kalifikatzeko, oposizioko bigarren ariketaren emaitzak argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da izangaiak eskabidean alegatutako merezimenduak egiaztatzen.



Eskabidean alde zurretik adierazitako merezimenduak baino ez dira baloratuko, betiere goian adierazitako epea amaitzen denerako egiaztatu badira.

Oposizio-fasea gainditzeko izangaiak lehiaketa-fasean sartuko dira. Fase horretan, epaimahaiak honako merezimendu hauek baloratuko ditu, baldin eta eskabidean alegatu badira:

2.1. Esperientzia, gehienez 12 puntu, baremo honen arabera:

— Administrazio publikoan, E taldeko mendeko lanpostuetan, lan-kontratuko mendeko langileak: puntu 1, zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko.

Hilabete bati dagokion zatiari 0,08 puntu emango zaizkio. Ez dira baloratuko hilabetetik beherako zatiak.

Administrazio publikoan emandako zerbitzuak zerbitzuak eman diren administrazioaren ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira, eta horietan jaso beharko da zein den kontratuaren iraupena eta betetako lanpostua.

Sopelako Udalean emandako zerbitzuak ofizioz egiaztatuko dira.

2.2. Prestakuntza, gehienez 3 puntu:

Atal honetan balioetsiko dira IVAPek, INAPek eta gainerako prestakuntza-zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, baita etengabeko prestakuntzarako planak gauzatzen laguntzen duten antolakunde eta erakundeek ere, baldin eta lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzenean lotutako gaiak buruzkoak izan badira. Horrela, prestakuntza-saio horien ordu-kopurua zein izan den, baremo honen arabera balioetsiko dira:

— 5-19 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,25 puntu.

— 20-49 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,50 puntu.

— 49 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 0,75 puntu.

Egindako ikastaroak ziurtatzeko, ikastarook eman dituen erakunde ofizialaren egiaztapenak aurkeztu beharko dira edo lortutako tituluak ekarri. Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeak aurkeztu behar den dokumentazioan prestakuntzaren iraupena zehaztu beharko da.

2.3. Titulazio ofizialak

Halakotzat hartuko dira soilik Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak halakotzat onartzen dituenak, gehienez ere 3 punturaino:

— Eskola-graduatuaren titulazioa: puntu 1.

— Batxilergoko, LHIIko edo goi-mailako teknikariaren titulazioa. 2 puntuko balioa emango zaio.

Lehiaketa-aldiko gehieneko puntuazioa.

Lehiaketa-aldian, guztira, 18,00 (hamazortzi) puntu eman daitezke gehienez ere.

Hamaikagarrena. — Hautaketa-prozesuko kalifikazioa

1. *Emaitzak argitaratzea*

Ariketa bakoitzeko puntuazioak udalaren iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratuko dira, dagokion iragarkiaren bidez.

Deialdiaren oinarri espezifikoetan adierazitako txanda bakoitzak bere zerrenda izango du.

Oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lehiaketa-merezimenduak baloratzeko, batu egingo dira ezarritako baremoen arabera emandako puntuak, eta ezin izango da inola ere izan oposizio-fasean lor daitezkeen gehieneko puntuazioaren % 45 baino handiagoa.

Izangai bakoitzak oposizio-aldian eta lehiaketa-aldian lortutako puntuazioak batuz aterako da bakoitzaren amaierako kalifikazioa.

**2. Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak egitea**

Arau orokor gisa, Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen denetik hiru egun balioduneko epea ezartzen da egindako azterketen berrikuspena eskatzeko edo horien kalifikazioen kontrako erreklamazioak aurkezteko. Hori guztia, hargatik eragotzi gabe Epaimahaiaren jarduna aurkaratzeari buruz zazpigarren oinarrian ezarritakoa.

3. Amaierako kalifikazioa eta lehentasun-hurrenkera

Amaierako kalifikazioa oposizio-fasean (ariketa bakoitzaren puntuazioen batura) eta, hala badagokio, lehiaketa-fasean (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura) lortutako puntuazioen batura izango da, eta horrek zehaztuko du zein den plazak eskuratu nahi dituzten lehentasun-hurrenkera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginaren 21.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, gaitasun berdina izanez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna Administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta horien ordezkaritza %40tik beherakoa bada. Salbuespena izango da beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea –sexuagatik diskriminatzaileak izan gabe–, besteak beste enplegua lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Aurreko paragrafoan araututakoa eragotzi gabe, berdinketak bere horretan jarraituz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde egingo da; bigarrenik, Sopolako Udalean denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, Euskal Administrazio Publikoan denbora gehien eman duenaren alde; laugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, adin handiena duenaren alde.

4. Destinoak aukeratzea

Destinoak aukeratzeko, aintzat hartu beharko da hautatutako pertsonak hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapenean duen hurrenkera. Hala ere, barne-sustapeneko txandetatik datozen hautatuek izango dute lehentasuna.

Hamabigarrena. — Gaingitu dutenen zerrenda**1. Ariketak gaingitu dituzten pertsonen zerrenda argitaratzea**

Oposizio aldiko ariketa bakoitza zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu ariketa horretan lortutako kalifikazioak udalaren iragarki-oholean, udalaren web-orrian eta azterketa-lekuetan.

Oposiziozko azken ariketa amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak gaingituen behin betiko zerrendak argitaratuko ditu, puntuazioaren arabera antolatuta. Zerrenda horietan oposiziozko ariketen kalifikazioak, lehiaketa-fasekoak eta guztizko batura adieraziko dira. Zerrenda horiek organo eskudunari bidaliko zaizkio, eta probaldian lan-kontratu mugagabeko langile gisa sartzeko proposamena egingo zaio, kontratazioa erabakitzen duen ebazpenean adierazten den laneratze-datatik probaldia gaingitu arte edo probaldia ez gaingitzeagatik hautaketa-prozeduratik kanpo geratzen den arte.

